

**8.**

# **EBALUAZIO AFEKTIBO ETA SOZIALA**

## 8. EBALUAZIO AFEKTIBO ETA SOZIALA

---

Harreman pertsonalek garrantzi handia dute gizakien dinamikan. Beste gizakiekin harremanetan jartzerakoan, batasuna, intimitatea, segurtasuna eta ongizatea lortzeko joerak indar handia du gizakiengan. Joera hori oinarrizko (ikasi gabeko) behar multzoetan oinarritzen da. Ondorioz, esan dezakegu gizarte-harremanen sare bat izateko beharra: lagunak edo ezagunak edukitzeko eta gizatalde bateko kide sentitzeko gaitasun sozialaren oinarrian dago.

Kapitulu honetan, ebaluazio afektibo eta soziala landuko dugu. Bizitza afektibo eta sozialaren oinarria den atxikimenduaren ebaluazioa aztertzen hasiko gara. Atxikimenduaren ebaluazioa egiteko zenbait metodo eta tresna ikusiko ditugu, haurtzaroan eta nerabezaroan erabiltzen direnak. Gero, portaera sozialaren ebaluazioa jorratuko dugu. Portaera sozialarekin lotuta dauden Autokontzeptuaren eta Autoestimuaaren Ebaluazioari hurrengo atala eskainiko diogu. Laugarren atalean, harreman sozialaren disfuntzio bat, Fobia eta Antsietate Soziala, eta haren ebaluazioan erabiltzen den tresneria jorratuko ditugu, eta bukatuko dugu Familiaren ebaluazioarekin; izan ere,

elkarbizitzaren erregelak eta oinarriak familiaren barruan ikasten dira, eta gurasoen eredu hezitzaileak eragin handia du haurren egokitzapenaren garapenean.

## ATXIKIMENDUAREN EBALUAZIOA

Atxikimenduaren teoriak (*Attachment Theory*) John Bowlby (1907-1991) eta Mary Ainsworth (1913-1999) ditu oinarritzko zutabe.

Ainsworth-entzat, atxikimendua da haurraren eta bere amaren artean eraikitzen den afektuzko lotura (Ainsworth eta beste, 1978), eta irudi berezi batekin (amarekin edo horren ordezkorekin) gertutasuna eta kontaktua izateko desira iraunkor batetik eratortzen da. Ainsworth-ek, teoriaz gainera, ebaluazio eta ikuspegi metodologikoak landu zituen hasiera hasieratik.

Bowlby-k, psikiatra eta psikoanalista, ama-haurren arteko erlazioa ikertu zuen bere hasierako lanetatik. Ez zegoen oso ados betiko adierazpen psikoanalitikoarekin, zeinak defenditzen baitzuen haurrak atxikimendua ziela zaindariei, haiek bere oinarritzko beharrak (gosea bereziki) asetzen zituztelako. Harlow-ek (1958) amarengandik bereizten zituzten rhesus makakoekin egindako lanak bat zetozen Bowlby-ren formulazioekin. Psikologian, portaeraren zientzietan, fisiologian, zibernetikan eta etologian oinarria zuten ekarpenak bilduz, Bowlby-k gorputz teoriko sendo bat eratu zuen. Harentzat, atxikimendua irudi berezi batekin gertutasuna eta kontaktua edukitzeko joera bat da. Joera horretan, testuinguruak eragina du: beharra handitu egiten da zenbait unetan (subjektua beldurturik, nekaturik, gaixorik edo urduri sentitzen denean), eta gutxitzen subjektua ongi edo seguru sentitzen denean eta ingurua esploratu nahi duenean.

Atxikimendua portaera instintibo bat da, baina egoerak eta atxikimendu-irudiarekiko harremanak moldatzen eta modulatzeko dute denboran zehar. Portaera hori bizitzako lehen urtean agertzen da haur gehienetan; nahiko tipikoa den era batean ikus dezakegu bigarren urtean; bizitzako hirugarren urtean, oso markatua izaten jarraitzen du, eta gero, poliki-poliki apaltzen hasten da. Nerabezaroan eta heldutasunean, aldaketa batzuk gertatzen dira atxikimendu-portaeran (atxikimendu-irudiarekiko ere bai), baina portaerak, berez, bizirik irauten du pertsonen bizi guztian zehar.

Atxikimenduaren helburu orokorra segurtasuna lortzea da. Atxikimendu-irudiekin erlazio ona izateak zera dakar: segurtasun-sentimendua, gertutasuna atxikitzeke portaera batzuk eta, beharrezkoa izanez gero, bere prestasuna agertuko duela aldarrikatzen duen buruko eredu bat. Beraz, atxikimendua ebaluatzean, hiru ikuspegi hauek ebaluatu beharko lirateke: segurtasun-sentimendua, portaerak eta buru-irudikapenak.

Lehen esan dugun bezala, atxikimenduaren kontrol-sistemak azpimarratzen du barne-antolamenduaren eta atxikimendu-irudien eta selfaren barneko ereduaren garrantzia. Era eraginkor batean atxikimendu-sistema aktibatzeke eta desaktibatzeke, haurrak atxikimendu-irudiaren eta bere buruaren barne-eredu bat sortu behar du. Barne-eredu horri esker, atxikimendu-irudiaren prestutasuna, onargarria den urruntasun- edo gertutasun-maila eta, oro har, berari laguntzeke agertzen duen jarrera aztertuko ditu. Era berean, ebaluatuko du bere burua arreta merezi duen eta bere trebetasunak besteen arreta erakartzen duen.

Barne Eredu Eraginkorrak edo *Internal Working Models* horiek ezaugarri batzuk dituzte, eta *barruko objektua*, teoria psikoanalitikoan, *eskema*, *skript*, *gidoia* edo

*konstruktu pertsonalak* garapenaren psikologiakoen eta psikologia kognitibokoen antzekoak dira. Eginbehar berdina dute: harreman afektiboetarako buruzko informazioa antolatzea, aukeratzea eta erabiltzea (informazio gehiago: Yáñez, 1992; Yáñez eta Páez 1993 eta 1994).

Hauek dira Barne Eredu Eraginkorren ezaugarriak (Bretherton, 1985).

- Norberari eta besteei buruzko buru-irudikapenak dira, osagai afektiboak eta kognitiboak dauzkatenak
- Atxikimendu-portaerekin eta estres- edo arrisku-egoeretan zaintzaileen hurbiltasuna bilatzeko dagoen senari lotutako (Bowlby, 1982) gertakari hedatuen irudikapenetatik abiatuta osatzen dira (Bretherton, 1985).
- Harremanaren ereduak ez daude soilik atxikimendu-irudiarekin bizi izandako esperientzien menpe; subjektuak haien inguruan egiten duen interpretazio afektibo-kognitiboak ere badu eraginik.
- Behin osatuta, Barne Eredu Eraginkorrak automatizatu egiten dira; hau da, kontzientziatik kanpoko funtzionamendua dute, eta egonkortasunerako joera indartsua dute (Bowlby, 1980).
- Jokabidearen, oroimenaren eta arretaren norabiderako eta antolaketarako arauak eskaintzen dituzte; horrek erraztu edo oztopatu dezake subjektuak bere buruaren, atxikimendu-irudien eta bien arteko erlazioen inguruan eduki ditzakeen ezagutza jakin batzuk eskuratzea.
- Haurtzaroan zehar, harremanaren Barne Eredu Eraginkorretan aldaketak gerta daitezke, haurraren esperientzia zehatzean gauzatutako aldaketen ondorio gisa.

- › Eragiketa Formalen aldiaren ostean, baliteke aurretik ezarritako harreman berezi baten Barne Eredu Eraginkorrak aldatzea, subjektuak pentsamenduari berari buruz pentsatzeko (hau da, harreman jakin bat urruntasunetik aztertzeko), eskuratzen duen gaitasunaren ondorio gisa.

## **Atxikimendua ebaluatzeko tresnak**

### **A: Behaketa-metodoak**


#### **◆ Strange Situation edo Egoera Arrotza (Ainsworth eta Witting, 1969)**

Atxikimenduaren barruan ebaluazio-prozedurarik ezagunena, eta erabiliena, 20 minutuko laborategiko behaketa-egoera bat da, Strange Situation edo Egoera Arrotz deritzona.

| <b>EGOERA ARROTZA</b>   |   |
|-------------------------|---|
| <b>Egileak:</b>         | Ainsworth eta Witting, 1969   |
| <b>Tresna:</b>          | Strange Situation - Egoera Arrotza  |
| <b>Metodoa:</b>         | laborategiko behaketa   |
| <b>Ebaluazio modua:</b> | haur portaeraren kategorizazioak  |
| <b>Emaitzak:</b>        | Seguruak (B taldea)<br>Ekiditzaileak (A taldea)<br>Anbibalenteak (C taldea)<br>Desantolatuak (D taldea) (Main eta ab. 1985) |

## Egoera arrotzaren eskema

norabide bakarreko ispilua



Zortzi gertaeraz osaturik dago egoera hau. Haurra sartzen da amarekin —edo beste atxikimendu-irudi batekin— lehen ezagutzen ez zuten jostailuz betetako gela batean —laborategian—. Hasieran, haurraren portaerari behatzen zaio amarekin dagoenean —biak bakarrik eta arrotz baten aurrean—; gero, ama joaten da eta haurraren portaerari behatzen zaio —behin bakarrik dagoela, eta beste behin arrotzarekin—. (ikusi laukia gertaeren deskripziorako).

## Arrotz Egoeraren gertaerak

1. Ikertzaileak subjektu helduak, haurrak besoetan dituztela, sarrarazten ditu ikerketa-gelan. Gela hori norabide bakarreko ispilu edo bideo-sistema batez horniturik dago.

Gelan, esan bezala, haurraren adinerako egokiak diren jostailuak daude. Bi aulki daude, helduarentzat bata eta ezezagunarentzat bestea. Ikertzaileak helduari eskatzen dio haurra bi aulkien artean uzteko eta esertzeko.

2. Heldua eta haurra bakarrik gelditzen dira. Helduak aldizkaria irakurtzeko agindua du, haurrarekin harremanik ez izateko. Haurra harremanetan jartzen bada edo beharren bat adierazten badu, bakarrik egingo dio kasu. Beharrezkoa izanez gero, haurra jostailuak esploratzera animatuko du.

3. Haurra eta helduarentzat arrotza edo ezezaguna den emakume bat (hortik prozeduraren izena) sartzen da, agurtu eta eseri egiten da. Poliki-poliki, haurraren arreta lortu nahian, baina intrusiboa izan gabe, haurraren ingurua inguratzen da.

4. Heldua, haurrari ezer esan gabe, gelatik irteten da, aulkian berea den zerbaitek utziaz, itzuliko delako seinale. Haurra pertsona arrotzarekin geratzen da; arrotza urrundu egiten da, eta ez da haurrarekin harremanetan jartzen. Haurra gaizki sentitzen bada, arrotzak kontsolatu egiten du eta jostailuekiko interesa pizten saiatzen da haurraren inguruan.

5. Heldua itzultzen da eta arrotza badoa. Sartu baino lehen, ozenki hitz eginaz, heldua hor dagoela adierazten du. Gelan dagoenean, haurraren erantzuna (inguratzea edo beste edozein) ikusi ahal izateko geldione bat egiten du. Helduak bigarren gertaeran zuen jarrera berbera hartuko du. Haurra itsasten bazaio, heldua haurra lasaitzen eta jostailuekin interesa dadin ahaleginduko da.

6. Heldua gelatik ateratzen da berriz, haurra bakarrik utziaz, baina oraingoan segituan itzuliko dela dio. Ispiluaren beste aldetik, edo telebistako monitoretik haurra ikusten du; hura gaizki sentitzen bada, prozedura moztu egiten da.

7. Arrotza itzuli eta haurrarekin bakarka egoten da. Amak 5. gertaeran bezalaxe jardungo du. Haurrak ez badio kasurik egiten, bere arreta lortzen saiatzen da, eta gero urrundu egiten da. Haurra itsasten bazaio, hura lasaitzen eta jostailuekiko interesa pizten saiatzen da.

8. Heldua itzultzean arrotzak alde egiten du. 5. gertaldian bezala, geldione bat egin eta gero, helduak haurra besoetan hartu, eta berarekin egoten da azkeneko hiru minutuetan.

Laborategiko behaketa-egoera horretan, estres apal batean murgiltzen da haurra. Horri esker, beha dezakegu haurrak nola antolatzen duen bere portaera atxikimendu-irudiarekiko, zein den irudi horrek ematen dion segurtasun-maila ingurua miatzeko eta ezezagunekin harremanetan jartzeko, eta nola portatzen den haurra atxikimendu-irudiak alde egiten duenean eta itzultzen denean. Egoera horren arabera, haurrak hiru talde nagusitan banatzen dira:

- B taldea: atxikimendu segurua duten haurrak. Haur horiek ama erabiltzen dute segurtasun-oinarri gisa, ingurua miatzeko eta lasaigarri gisa banaketaren ondoren.

Amak —edo ohiko zaintzaileak— segurtasunik ematen ez dionean inguru berri bat esploratzean, eta lasaitasunik ere ez banaketaren ondoren, haurraren atxikimendua segurtasunik gabekoa dela esaten da. Segurtasunik gabeko bi atxikimendu-eredu edo talde bereizten dira:

- A taldea: atxikimendu ekiditzailea (*avoidant*) agertzen duten haurrak. Ingurua esploratzen dute, atxikimendu-irudiarengan segurtasunik bilatu gabe. Hura gelatik ateratzen denean, lasai eta kexarik gabe gelditzen dira. Ama eta ezezaguna den heldua berdin samar tratatzen dituzte, eta, bukatzeko, ama itzultzen denean, ekiditen dute.
- C taldeko haurrei anbibalente (*ambivalent*) deritze. Esplorazio urria adierazten dute, amaren joan-etorriarik kezkatuak baitaude. Amak alde egiten duenean, kexatu egiten dira; baina itzultzen denean,

gertutasuna bilatu, eta, era berean, negarra eta arbuioa agertzen dituzte.

- D taldeko haurrak (Main eta abar, 1985) atxikimendu desantolatua edo desorientatua adierazten dute (*disorganized/disoriented attachment*). Mainek eta bestek (1981) aurkitu zuten talde txiki bat (% 13) ezin zela sartu A, B, C ereduaren barruan. Haur horiek kontrajarriak diren portaerak batera agertzen dituzte —esate baterako, helduarengana inguratzen dira, baina burua beste aldera bueltatuta—; haien mugimenduek osatugabeak dirudite, eta afektuen adierazpena gaizki bideratzen dute.

Atxikimenduaren segurtasunak oso erlazio estua du gurasoen —edo atxikimendu irudien— jarrerekin, eta bereziki irudi horren eskuragarritasunarekin: B ereduko haurren gurasoak eskuragarri dira haurrak behar dituztenean; A ereduko haurren gurasoak hotzak dira eta urrutitik tratatzen dituzte, eta C ereduko haurren gurasoak aldakorrak dira.

Laborategiko behaketan lortutako datuak interpretatzeko bi kodifikazio-sistema erabiltzen dira: haurraren *segurtasun-mailaren balioztapena* Egoera Arrotzeko gertaera guztietan, eta Ainsworth, Blehar, Waters eta Wall-en *Interakzio Eskalak* (1978). Lehenengoa erabiliena da, eta haurraren erantzuna kontuan hartzen du. Bigarren prozeduran, interakzio-eskalek kontuan hartzen dute ez bakarrik haurraren portaera, baita haren kide den helduarena ere.

Ainsworth eta bestek (1978) ematen dute eskala horien deskripzio zehatz bat. 7 puntuko eskala batean markatzen da portaera bakoitza, intentsitatearen arabera. Gertaera bakoitzean eskala horiek deskribatzen dute haurraren portaera atxikimendu-irudiarekiko edo arrotzarekiko, eta baita ere horien portaera haurrarekiko. Adibide gisa, ikus laukian lehen eskalaren deskripzioa. Askorik ez luzatzeagatik, 1-3-5-7 puntuei dagozkien deskripzioak agertuko ditugu.

## INTERAKZIO ESKALEN ADIBIDE BAT

### 1. Gertutasun eta kontaktu bila

- Aldagai honen bidez pertsona baten gertutasuna irabazteko edo berreskuratzeko haurraren ahaleginen intentsitatea eta iraunkortasuna ebaluatzen da. Puntuazio altuenak haurrak bere kabuz kontaktua lortzen duenean ematen dira. Gogoratu eskala hauetako puntuazioetan haurraren eta helduaren jarrerak kontuan hartzen direla.

7: Ahalegin oso markatuak kontaktu fisikoa lortzeko (adibidez, haurra helduarengana inguratzen da, eta bere kabuz kontaktua lortzen du).

5: Ahalegin nahiko markatuak kontaktu fisikoa lortzeko (adibidez, haurra inguratzen da, baina kontaktu-eskakizun bat egin gabe helduak besoetan hartzen du)

3: Kontaktu fisikoa lortzeko ahalegin eskasa, edo ahalegin apal bat helduaren gertutasuna lortzeko (adibidez, haurra inguratzen da, baina ez du eskatzen, eta helduak ez du hartzen).

1: Inongo ahaleginik ez kontaktu fisikoa edo gertutasuna lortzeko.

Eskalan behatzen diren portaerak hauexek dira:

1. Gertutasun eta kontaktuaren bila (haurraren ahaleginak helduarekin kontaktuan jartzeko).
2. Kontaktuan jarraitzea (haurraren ahaleginak helduarekin kontaktuan jarraitzeko).
3. Kontaktuarekiko erresistentzia. Honen bidez ikusten dugu haurrak nolako erresistentzia agertzen duen kontaktuan ez jartzeko heldua hurbiltzen zaionean edo harekiko interesa adierazten duenenean (adibidez, atzera egiten duen, helduak hartu nahi duenean; mutu gelditzen den; haserretzen den; helduak emandako jostailuak botatzen dituen...).
4. Ekiditea. Aldagai hau dagokio helduaren gertutasuna edo interakzioa oztopatzea helburua duen haurraren portaerari (bizkarra eman helduari, ez begiratu...)
5. Urrutiko interakzioa. Eskala honek neurtzen du haurrak, bestea ukitu gabe, helduaren aldera adierazten duen interesa (irribarrea, begirada...).
6. Desagertu den pertsonaren bilaketa deskribatzen da eskala honetan (heldua jarraitu ateraino, atea ireki nahi...)

### **B: Q Sort metodoak**

*Q-Sort* delako metodoa Stephenson-ek sortu zuen 1953. urtean, eta oso erabilia izan da nortasunaren ebaluazioan eta garapen-psikologiaren ikerkuntzan.

Q metodologiak hiru osagai ditu. Lehenbizi, interesatzen zaigun gaiari buruz item deskriptibo batzuk eratzen dira. Bigarren, item horiek puntuatuak izaten dira, subjektuaren barruan duten berezitasuna edo garrantzia ikusirik, eta hirugarren, hainbat prozedura erabil lezake datuak aztertzeko (*cluster* analisiak, eta abar).

#### ◆ Waters eta Deaneren Q-Sort metodoa (1985)

*The Attachment Q-Set* edo *Atxikimendua ebaluatzeko Q metodoa* lau etapatan mamitu zen. Lehenengo etapan, atxikimenduari dagokion bibliografia (lan teoriko eta enpirikoak) berrikusi zen, eta hortik garatu zen atxikimenduaren barruan garrantzi handikoak ziren konstruktoen, portaeren eta testuinguruaren zerrenda bat. Horren barruan zeuden, besteak beste, segurtasuna, dependentzia, desatxikimendua, *self*-eragimena, objektu-norabideko zenbait ikuspegi, komunikazio-trebetasunak, umorea, subjektuaren erantzuna fisikoki egina zegonean, beldurra, haserrea eta konfiantza.

Bigarren etapan, haurren etxeetara joanda, testuinguru natural batean haien portaerari behatuz, aurreko item multzoa erabili zen haurren portaera deskribatzeko. Portaera batzuk baztertu edo berraztertu egin ziren —sekulan gertatzen ez zirenak, edo epaileen arteko akordio txikiak jaso zituztenak—, eta beste batzuk aldatu egin ziren —esate baterako, item bakarra zena bi edo hiru itemetan banatu zen, maila teorikoan garrantzi handiko ziren bi edo hiru konstruktoren arten bereizketak egin ahal izateko—.

Hirugarren etapan, autoreek item guztiak eta haien kontrakoak kategoriatan banatu zituzten, eta orduan item bera edo haren kontrakoa baztertuak izan ziren, kategoria bakoitzaren barruan *trebetasun sozialaren falta* berdintzeko.

Laugarren eta azken etapan, gurasoak (edo haurra ebaluatu behar zutenak) item multzoarekin trebatu egin ziren, eta, horrela, haurren portaera deskribatu egin zuten. Beste bi behatzailek subjektu bakoitza hiru edo lau orduz bisitatu zuten, etxean eta bi aldiz. Item multzo bera erabiltzen zuten, haurren portaera deskribatzeko. Behatzaileen artean adostasun txikia lortu zuten itemak kendu ziren. Beste item batzuk baztertu ziren, gurasoek ulertzen ez zituzten termino teknikoak zirelako.

Prozedura horri jarraituz lortu zen 100 item duen bertsioa. Item bakoitzak titulu bat eta definizio bat ditu. Definizioa portaera bereziei edo testuinguru garrantzitsuei dagokie. Zenbait kasutan, kontrakoaren definizioa ere ematen da. Itemen mamia zortzi arlotara zabaltzen da:

- atxikimenduaren eta esplorazioaren arteko oreka
- lasaitua izateari emandako erantzuna
- afektua
- interakzio soziala
- pertzepzio soziala
- gauzen erabilera
- menpekotasuna
- tolerantzia

Behatzaile bakoitzak subjektua deskribatzen du, Q-Sorteko 100 itemak bederatziz multzotan banaturik, portaeraren tipikotasunaren arabera. Multzo bakoitzean kokatutako itemek banaketa estandarrari jarraitzen diote (5, 8, 12, 16, 18, 16, 12, 8, 5), eta puntuazio bat ematen zaie (+4tik -4ra bitarteko balioak).

"Attachment Q-Set" delakoak baliagarria da atxikimenduari dagozkion afektu, kognizio eta portaeraren arteko erlazioak aztertzeko. Metodo horrek posible egiten du atxikimenduaren ebaluazioa etologia-kontrolako sistemen ikusmoldetik. Eta, azkenik, gurasoak datu-emaile gisa erabiltzeak distortsioa gutxitzen du, ikerketak "merkatu" egiten ditu, eta, bide batez, lagin handiagoezin lan egiteko posibilitatea eskaintzen du.

## ATXIKIMENDUA EBALUATZEKO Q METODOA

**Egileak:** Waters eta Deane (1985)

**Tresna:** Attachment Q-Set

**Adina:** 12-36 hilabeteko haurrentzat

**Aztergaiak:** atxikimendua, esplorazioa eta haien inguruko portaerak etxean eta beste egoera natural batzuetan.

**Erabiltzailea:** ikertzaileak edo haurra ezagutzen dutenak (ama/aita, eta abar)

**Formatua:** 100 item (atxikimenduaren inguruko portaera esanguratsuak)

**Ebaluazio modua:** behatzaileak portaera deskribatzen duten itemak

banatzen ditu portaeraren tipikotasunaren arabera

**Emaitzak:** informazioa lortzen da ikuspegi hauei buruz:

- segurtasun-oinarriaren erabilerari buruz
- erantzun afektiboari buruz
- erreferentzia sozialari buruz
- ezagutza sozialaren beste ikuspegi batzuei buruz

**Tresnarekin egindako ikerketak:**

Segurtasuna eta haren inguruko kontzeptuak. Deane eta Waters (1984)

Amaren lana, haurtzaintza eta atxikimendua. Vaughn, Deane eta Waters (1985)

Txilen pobrezian bizi diren ama-haur bikoteen interakzioa. Valenzuela eta

Lara (1987)

### C. Atxikimenduaren ebaluazioa elkarrizketen bidez

◆ *Adult Attachment Interview* edo *Helduen atxikimenduari buruzko elkarrizketa*

(George, Kaplan eta Main, 1985):

Elkarrizketa hau sortu zen, ebaluatzeko nola integratzen zituzten helduek oroitzapen zehatzak gurasoen eta hauraren arteko harremanaren ulermen orokor baten barruan. Subjektuei eskatzen zaie deskribatzeko gurasoekin izandako harremanak, harreman horiek denboran zehar jasan dituzten aldaketak, eta oraingo helduen nortasunean duten eragina. Halaber, gurasoei erantzukizun konkretuez oroitzeko eskatzen zaie: nola erantzuten zuten nahigabetuak zirenean, gaixorik zeudenean edo ezbeharren bat zutenean. Hasierako azterketan, subjektuak izan ziren 6 urte lehenago Egoera Arrotzean ebaluatuak izan ziren haurren gurasoak (Main eta Goldwyn, 1985).

Elkarrizketa haien transkripzioen azterketaren bidez, lau antolamendu eredu nagusi azaldu ziren:

- *Seguruak edo atxikimendua ebaluatzeko askeak* diren pertsonak atxikimenduari balioa ematen zioten, eta atxikimenduaren inguruko gertaerak eraginkortzat jotzen zituzten. Bestalde, aske eta objektibo samarrak ziren, gertaerak edo harreman konkretu bat ebaluatzean. Erlaxatuak sentitzen ziren, atxikimendu-gertaerak gogoratzean, eta oroitzapenak, oro har, onak ziren. Gertaera txarren bat bururatzean, gauza ziren, harremanari gainbegiraturik, haren alde positibo eta negatiboak integratzeko.

- *Atxikimenduaren balio-kentzaileek (dismissing of attachment)* beste eredu koherente bat erakutsi zuten. Atxikimendu-harremanei garrantzia kentzeko joera zuten, eta maiz zailtasunak izaten zituzten atxikimendu-gertaera konkretuak gogoratzen, edota haien balioa mespretxatzen zuten egungo dinamikan. Gertaera zehatzez gogoratzen zirenean, arbuioa eta maitasun falta agertzen zuten gehienetan, nahiz eta maiz elkarrizketan gurasoen alderako gainbegirada positiboa izan.
  
- *Kezkatu (preoccupied)* gisa sailkatu zituzten pertsonak atxikimenduaren inguruko jarreraren "*sareetan harrapaturik*" sentitzen ziren. Nahiz eta talde honetako kideek maiz oso ongi gogoratu haurtzaroko gertaerak, arazoak izaten zituzten esperientzia horiek eredu koherente batean integratzen, eta nahasi samar agertzen ziren gurasoekiko harremanaren ikuspegi negatiboei dagokienez, zeren eta oraindik ere gurasoen gustukoak izateko ahaleginak egiten baitzituzten.
  
- *Atxikimendu desantolatu edo konpondugabe* gisa sailkatutako pertsonak gertakizun traumatikoak kontatzean *lapsus* edo hutsuneak izaten dituzte beren diskurtsoan. Kontatzen dituzten istorioak galera pertsonal bat (irudi garrantzitsu baten heriotza, esaterako) edo haurtzaroan gertatutako abusua edo tratu txarra adierazten dute. Atxikimendu desantolatua edo konpongabea *borderline* taldeko nahasteekin erlazionatuta dago.

Elkarrizketa hori helduen atxikimendua ebaluatzeko lehenengo tresna izan zen. Maila kontzeptual batean, eredu horiek harremana zuten haurtzaroan ikusitako Ainsworth-en atxikimendu ereduekin (seguru, anbibalente, ekiditzaile eta desantolatua). Areago, era enpiriko batean ere, ikusi zen gurasoen ereduak eta haurren ereduak korrelazioa zutela (esaterako, balio-kentzaileak ziren gurasoek haur ekiditzaileak izateko joera zuten).

### HELDUEN ATXIKIMENDU-ELKARRIZKETA

**Egileak:** Main, Kaplan eta Cassidy (1985)

**Tresna:** Adult Attachment Interview (Helduen Atxikimendu Elkarrizketa)

**Formatua:** elkarrizketa egituratua, bukaera irekiduna

**Aztergaia:** elkarrizketak bere osotasunean ematen dituen datuen azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa.

**Emaitzak:** Segurua edo atxikimendua ebaluatzeko askea

Atxikimenduaren balio-kentzaileak

Kezkatuak

Atxikimendu desantolatua edo konpondugabea

**Korrespondentziak:** Maila kontzeptualean: Ainsworth-en haur ereduekin

Enpirikoki: haurren ereduak gurasoen ereduekin

◆ ***Gurasoen atxikimenduari buruzko elkarrizketa (Bretherton eta beste, 1989)***

Bretherton, Biringen, Ridgeway, Maslin eta Sherman-ek (1989) sortu zuten *The Parental Attachment Interview (Guraso Atxikimendu Elkarrizketa)*, Main-en aurkikuntzak (atxikimenduaren segurtasunaren belaunaldien arteko transmisioa, bereziki) eta beraren elkarrizketa oinarritzat harturik. Elkarrizketa sakona, egituratua baina bukatugabea zen. Emankizunak bi eratan zuzendu ziren: lehenik, erantzunak aztertu ziren ama-haur atxikimendu-harremanaren kualitatibotasunaren ezberdintasunak ikusteko. Eta bigarrenik, amaren sentiberatasun/insight eskala bat (Biringen eta Bretherton, 1988) erabili zuten elkarrizketa osoari aplikatzeko.

Eskala hau Ainsworth-en eta Main-en ekarpenetan oinarritzen da: Ainsworthen ustez, amaren sentiberatasuna haurraren seinaleekiko atxikimendu seguru batekin erlazionaturik dago. Mainen eta besteren ikerketan (1985), haur seguruen amak gauza ziren atxikimenduaren inguruko gaiez era ireki eta koherente batean hitz egiteko.

## GURASOEN ATXIKIMENDU ELKARRIZKETA

**Egileak:** Bretherton, Ridgeway, 1986; Bretherton et al. 1989

**Tresna:** Parent Attachment Interview - Guraso Atxikimendu Elkarrizketa

**Formatua:** elkarrizketa sakona, egituratua, bukaera irekiduna

**Ebaluazio modua:** A) Edukien analisisa. Amaren jarrera atxikimendu-portaerekiko

- ama-haur afektuaren komunikazioa
- ama-haur banakuntza
- autonomia-negoziatioak

B) Azterketa orokorra. Amaren sentiberatasuna/insight haurrekiko

**Korrelazioa haurraren beste atxikimendu neurriekin:**

Strange Situation kalifikazioa (18 hilabetetan)

Waters eta Deane Q Sort (25 hilabetetan)

Bereizketa-Bilera Prozedura (37 hilabetetan)

Atxikimendu Historia Osatzeko Lana (37 hilabetetan)

### D. Galdesortak Haur eta Nerabeen Atxikimenduaren Ebaluazioan

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, atxikimenduaren teoria finkatu ondoren, nerabezaroan eta helduaroan atxikimenduaren hainbat ikuspegi ebaluatzeko autotxostenak sortzen eta erabiltzen hasi ziren. Lauki hauetan, nerabeen atxikimenduaren hainbat ikuspegi ebaluatzeko sortu diren autotxosten batzuei buruzko informazioa aurkezten dugu:

## AUTOTXOSTENAK NERABEEN ATXIKIMENDUAREN EBALUAZIOAN

**Tresna:** The Inventory of Parent and Peer Attachment, edo Gurasoen eta Lagunen Alderako Atxikimendu Inbentarioa, IPPA.

**Egileak:** G.C. Armsden, eta M.T. Greenberg (1987).

**Adina:** 12-19 urte.

**Formatua:** 60 item dauzkan galdesorta, Likert motako eskala baten arabera erantzutekoa.

**Ebaluazioaren Helburua:** guraso eta lagunetikiko atxikimenduaren ikuspegi afektibo-kognitiboak.

**Ebaluazio dimentsioak:** 1) Atxikimendu-irudi eskuragarri eta erantzuleekin izandako konfiantzazko esperientzia positiboa.

2) Ez-erantzule edo erantzule funsgabedunak izan diren atxikimendu-irudiekiko tratuan izandako haserraldia edo babesgabetasunezko esperientzia negatiboa

**Hainbat eskala:**

- Aitak
- Amak
- Berdinkideak

---

**Tresna:** Parental Bonding Instrument, Gurasoekiko Loturari buruzko Galdesorta (PBI)

**Egileak:** Parker, Tupling eta Brown (1979)

**Aplikazio-adina:** nerabe eta helduak

**Formatua:** 25 item; lau puntuko eskala batean ematen da erantzuna

**Ebaluazioaren helburua:** gurasoekin izandako harremanaren eta haurtzaroko atxikimendu-estiloaren oroitzapenak heldu eta nerabeengan.

**Ebaluatutako dimentsioak:** Zaintza  
Gehiegizko ardura

### E. Nerabe eta helduen atxikimendua ebaluatzeko test proiektiboak

*Helduen atxikimendua ebaluatzeko test proiektiboa* (Adult Attachment Projective, AAP) Carol George eta Malcolm West-ek (George eta West, 2001) garatu zuten tresna bat da, atxikimendua ebaluatzeko helburua duena. Heldu eta nerabeekin erabil daiteke tresna hau.

## ATXIKIMENDUA EBALUATZEKO TEST PROIEKTIBOA: THE ADULT ATTACHMENT PROJECTIVE (AAP)

**Tresna:** The Adult Attachment Projective (AAP) edo Helduen Atxikimendua Ebaluatzeke Test Proiektiboa

**Egileak:** C. George eta M. West (2001)

**Aplikazio-adina:** nerabeak eta helduak

**Aplikazio-denbora:** 35 minutu, gutxi gora behera

**Ebaluazioaren helburua:** heldu eta nerabeen buru-irudikapenak eta defentsak atxikimenduaren inguruan.

**Formatua:** atxikimenduarekin zerikusia duten zazpi lamina, eta sarrera gisa erabiltzen den lamina neutro bat.

**Ebaluazio modua:** estimulu proiektiboen aurrean subjektuek emandako erantzunen azterketan oinarritzen da.

**Ebaluatutako dimentsioak:** diskurtsoa  
edukia  
defentsa-prozesuak


**Emaitzak:** AAI bezala, subjektuen sailkapena kategoria hauetan:

seguruak  
atxikimenduaren balio-kentzaileak  
kezkatuak  
konpondugabeak

**Ezaugarri psikometrikoak:** epaileen arteko akordioa % 92-97 (kategorien arabera). AAIrekiko adostasuna % 86koa da lau kategorietan.

Zortzi lamina edo irudi dira pertsonen istorioak estimulatzeko erabiltzen den materiala. Atxikimenduarekin zerikusia duten zazpi lamina eta sarrera gisa erabiltzen den lamina neutro bat. Gero, AAP testaren bi lamina bat ikus dezakegu, adibide gisa.

***Adult Attachment Projective (AAP) testaren irudiak (George eta West, 2001)***



Testa 35 minutuan pasatzen da. AAI bezala, istorioak grabatu egiten dira, hitzez hitz transkribatu, eta, azkenik, aztertu egiten dira. Ebaluazioa estimulu proiektiboen aurrean subjektuek emandako erantzunen azterketan oinarritzen da. Hiru dimentsio aztertzen dira: diskurtsoa, edukia eta defentsa-prozesuak. Protokoloak sailkatzen dira, AAIn bezala, lau kategoriatan: seguruak, balio-kentzaileak, kezkatuak, eta konpondugabeak.

Ezaugarri psikometrikoei dagokienez, onak direla esan behar dugu: epaileen arteko akordioa % 92-97koa da (kategorien arabera). AAIREkiko adostasun-maila % 86 da lau atxikimendu-kategorietan (George and West, 2001).

## PORTAERA SOZIALAREN EBALUAZIOA

Haur eta nerabeen portaera soziala ebaluatzeko tresna asko dago. Tresna horietako batzuk haur-nerabearen inguruan dauden pertsonak (gurasoek, irakasleek) erantzuteko eginak dira, eta beste batzuk subjektuak berak erantzuteko. Askotan, jarraian ikusiko dugun BAS tresnan, test berdinen bi bertsio dira:

◆ **BAS. Sozializazio-bateria.** Silva eta Martorell, 1989, 1995.

Bi forma daude:

- ◆ BAS-1,2. Irakasle eta gurasoentzat
- ◆ BAS-3. Autoebaluazioa

### *BAS-1,2 Irakasle eta gurasoentzat*

- Iraupena: 20 minutu
- Aplikazioa: haurrak eta nerabeak (6-15 urte)
- Ebaluazioaren gaiak:
  - *Sozializazioaren aldeko lau dimentsio:* buruzagitasuna, alaitasuna, sentiberatasun soziala, errespetu-autokontrola
  - *Sozializazioaren asaldatzaileak:* agresibitatea-egokorkeria, apatia-uzkurtasuna, antsietate-herabetasuna
  - *Egokitze Sozialaren Eskala Orokorra, edo Irizpidezko Sozializazioa.*

### ***BAS-3 autoebaluazioa***

- Iraupena: 10 minutu
- Aplikazioa: haurrak eta nerabeak (11-19 urte)
- Ebaluazioaren gaiak:
  - Portaera sozialaren bost dimentsioak: besteenganako begirunea, autokontrola harreman sozialetan, uzkurtasun soziala, antsietate soziala / herabetasuna, eta buruzagitasuna.
  - Zintzotasun-eskala bat du.

### ***BAS-2 (gurasoak) tresnaren adibideak***

2. Pertsona alai gisa aurkezten da.

8. Besteri gertatzen zaionarekiko interesa adierazten du.

28. Beste hurrekin ondo moldatzen da.

5. Bortitza da eta lagunak jotzen ditu.

9. Zerbait txarra gertatzen bazaio, besteei leporatzen die.

11. Begirada tristea du, dirdira gabea.

## AUTOKONTZEPTUA ETA AUTOESTIMUAREN EBALUAZIOA

Egokitzapen sozioemozionalaren alderdi garrantzitsuak dira bakoitzak bere buruaz duen ideia, edo autokontzeptua, eta harekin erlazionatuta dagoen autoestimua. Garapena kontuan harturik, 7 edo 8 urteen inguruan da posible autokontzeptuaren ebaluazioa, ez lehenago. Adin horretan hurrek badute beren burua deskribatzeko eta besteekin konparazioak egiteko ahalmena.

Taula honetan, autokontzeptua eta autoestimua ebaluatzeko tresna batzuen ezaugarriak aurkezten ditugu:

## AUTOKONTZEPTU ETA AUTOESTIMUAREN EBALUAZIOA

| TRESNA-URTEA-EGILEAK  | EBALUATZEN DU  | APLIKAZIO-ADINA | TRESNAREN EGITURA   | EZAUGARRI PSIKOMETRIKOAK                                    |
|---|----------------|-----------------|---|---|
| <i>Autoconcepto Forma A AFA</i>   | Autokontzeptua | 12-17           | 36 itemak<br>1-3ko eskala batean balioztatzen dira, maiztasunaren arabera   | Fidagarritasun ona (Crombach-en $\alpha$ ) eta test-birtest |
| <i>Escala de Autoconcepto para Adolescentes</i><br>(A-1, Martorell eta Silva, 1981, 1985)<br>(A-2, Martorell eta Silva, 1987) | Autokontzeptua | Nerabeak        | 70 galderak bi puntuko eskala batean balioztatzen dira<br>Faktoreak:<br>▪ Antsietatea-Bakartasuna<br>▪ Autoestimua<br>▪ Nagusitasuna-Entzutea (popularitatea) | Fidagarritasun ona (Crombach-en $\alpha$ ren bidez neurtua) |
| <i>Self-Esteem Inventory SEI</i><br>(Coopersmith, 1967)   | Autoestimua    | 10-16           | 58 itemak bi puntuko eskala batean balioztatzen dira  | Fidagarritasun test-birtest ona                             |

### ◆ AFA autokontzeptua. A forma

Test honen egileak G. Musitu, F. García eta M. Gutierrez dira. Nerabegaroko eta nerabegaroko aurreko autokontzeptua ebaluatzen du. 36 item dauzka, eta erantzuna ematean aukera hauek daude: beti, batzuetan, eta inoiz ez.

Lau faktore aurkitu dira test honetan, eta bakoitzak autokontzeptuari buruzko informazioa ematen du testuinguru zehatz batean: testuinguru akademikoan, sozialean eta emozionalean, eta familian.

#### **AFaren itemen adibideak**

1. Zaila da niretzat lagunak mantentzea.
7. Zerbait gaizki ateratzen zaidanean desanimatzen naiz.
8. Etxeko lanak ongi egiten ditut.
19. Eskolari gorroto diot.
21. Lagun asko daukat.
28. Laster ahazten dut ikasten dudana.
31. Klasean lan asko egiten dut.
33. Gauza batzuek beldurra ematen didate.
36. Zintzoa naiz neure buruarekin eta besteekin.

Hona hemen test honen ezaugarri nagusiak:

## **AFA**

### **Autokontzeptua. A Forma**

G. Musitu, F. García eta M. Gutierrez, 1981

#### **FITXA TEKNIKOA**

**Izena:** Autokontzeptua, A forma (AFA).

**Egileak:** G. Musitu eta beste, 1981.

**Pasatze modua:** bakarka eta taldeka.

**Iraupena:** 15 minutu, gutxi gorabehera, zuzenketa barruan dela.

**Aplikazio-adina:** 11-17 urte gutxi gorabehera (OHoko bigarren zikloa eta BBB).

**Ebaluazioaren gaia:** autokontzeptua nerabezaroan eta nerabezaroaren aurretik

**Testaren egitura:** 36 item dauzka; erantzunak: beti, batzuetan eta inoiz ere ez.

Lau faktore aurkitu dira test honetan:

akademikoa

soziala

emozionala

familiakoa

**Zuzenketa eta interpretazioa:** Txantiloia bidez, subjektuari dagokion puntuazio

zuzena lortzen da. Item bakoitzak 1, 2 edo 3 puntu balio du, galderaren

zentzuaren arabera.

Puntuazioak pertzentilatan estandarizatzen dira.

**Ezaugarri psikometrikoak:** onak.

◆ *Escala de Autoconcepto para Adolescentes*, edo *Nerabeentzako autokontzeptu-eskala*.

(A-1, Martorell eta Silva, 1981, 1985); (A-2, Martorell eta Silva, 1987)

70 galdera dira, eta bi puntuko eskala batean balioesten dira.

Aztertzen dituen faktoreak honako hauek dira:

- Antsietatea-Bakartzea
- Autoestimua
- Nagusitasuna-Entzutea

◆ *SEI. Self-Esteem Inventory* edo *Autoestimua ebaluatzeko inbentarioa*

(Coopersmith, 1967).

Test honek autoestimua neurtzen du. Aplikazio-adina 10-16 urte dira. 58 item ditu, eta bi puntuko eskala batean balioesten dira. Ezaugarri psikometrikoak (fidagarritasun testa-birtesta) onak dira.

## **FOBIAREN ETA ANTSIETATE SOZIALAREN EBALUAZIOA**

Fobia soziala jasaten duten subjektuek beldur ikaragarria diete egoera sozialei, besteek ebaluatzen dituztela sentitzen dutelako. Horregatik, lotsatuta eta gutxi estimatuak sentitzen dira. Autokritikoak izaten dira, eta hainbat sintoma izaten dituzte, hala nola, palpitazioak, dardarak, transpirazioa edo izerdia.

Horrenbestez, autoestimua apaleko pertsonak izaten dira, eta jasaten dituzten beldur gehigarrien jakitun dira.

Gaur egun, *antsietate sozial* terminoa erabiltzen da. Izan ere, fobia soziala fobia simple bat baino gehiago dela jotzen da. Antsietate soziala bereizi beharra dago beste antsietate-arazo batzuetatik.

### **Fobia soziala haur eta nerabeengan**

Fobia soziala daukaten haur eta nerabeek zenbait arazo izaten dituzte eskolan: ikaskideen aurrean hitz egitea, jantokian bazkaltzea, eta gorputz-hezkuntzako klaseetan arropaz aldatzea, adibidez.

Azkeneko azterketako datuei begiraturaz (Witten et al., 1999), esan dezakegu fobia soziala duten haur eta nerabeak % 16-10 direla.

Fobia soziala nerabezeroaren hasierako aldian hasten da. Izan ere, aldi horretan lehenengo gutxitasunak eta arazo sozialak hasten dira.

Haur eta nerabeen artean, fobiaren garapena oso zabala da. Bi mota bereiz daitezke:

- › Alde batetik, *fobia sozial orokorra* dago. Arazo hori duten haur eta

nerabeek beren gaitasun kognitiboa gutxiesten dute, eta eguneroko bizitzan antsietate-maila handiak eragiten dien egonezina jasaten dute.

Fobia soziala daukan haurra ez da besteengandik guztiz aldentzen, eta joko-taldeak bilatzen ditu, baina beste sexuko pertsonekin edo zaharragoekin.

- ▶ Bestalde, *fobia sozial espezifikoa* daukagu. Fobia hori jasaten duten haurrak beldurtiagoak dira, depresio-sentimendu gehiago izaten dituzte, eta bakartze sozial handiagoa izaten dute. Fobia sozial espezifikoek era askotako ondorioak izaten dituzte.

Bide horretatik jarraituz, Beidel eta Randall-ek (1994), ikerketa baten ondorioz, antsietatea sortzen duten egoeren zerrenda bat osatu zuten: jendearen aurrean hitz egitea (% 89), besteen aurrean jatea (% 39), jaietan parte hartzea (% 28), autoritatea duen jendearekin hitz egitea (% 21) eta modu informalean hitz egitea (% 13). Horiexek dira antsietatearen eragilerik nabarmenenak.

Lehenengo egoera estresagarria, jendearen aurrean hitz egitea, maiz testuinguru akademiko batean, edo geroago lanean, ager daiteke. Fobia horrek hasiera goiztiarra izaten du (% 50ek, % 75ek eta % 90ek 13, 17 eta 20 urtetan garatzen du, hurrenez hurren). Hainbat sintoma eragiten ditu: dardarak (% 80), gorritzea (% 80), burua hutsik geratzea (% 74), zerbait lotsagarria esatea (% 64), hitz egiten jarraitzeko gaitasuna galtzea (% 63) eta esanahirik gabeko gauzak esatea (% 59). Egindako ikerketek aurkitu dute biztanleriaren sektore zabal batek jasaten duela.

## **Fobiaren eta antsietate sozialaren ebaluazioa**

Arazoaren hainbat ikuspegi ebaluatzea komenigarria da, hura ulertzeko eta deskribatzeko, esku-hartzeari begira.

Fobia sozialaren kasuan hiru ebaluazio mota erabil ditzakegu: autotxostenak, non pertsonak berak ematen baitu informazioa; behaketa zuzena, hots, benetako egoeretan edo manipulaturako egoeretan subjektuaren jarrera behatzea, eta, azkenik, erregistro psikofisiologikoak.

Hemen, elkarrizketa bidezko autotxosten eta autoerregistroetan zentratuko gara:

### ***Elkarrizketak:***

a) Egituratutako elkarrizketak dira gehien erabiltzen direnak. Horien artean:

◆ **DIS *Diagnostic Interview Schedule*** edo ***Elkarrizketa diagnostikoaren protokoloa*** (Robins, Helzer, Croughan eta Ratcliff, 1981). Bertan, fobia soziala eta beste patologia batzuk ebaluatzen dira. 30 itenez osatuta dago, eta 10-20 minutuan pasatzen da. DSM gisako 43 diagnostiko posible ematen dituen informatika-programa batez hornitzen da. Ezaugarri psikometrikoak, hala ere, ez dira oso onak, eta hobe da, momentuz, soilik ikerketa epidemiologikoetarako erabiltzea.

◆ **MINI, *Mini International Neuropsychiatric Interview*** (Sheeham et al., 1994), edo ***Mini, G atala, fobia soziala*** gaztelaniazko bertsioan, (Ferrando et al., 1997). Elkarrizketa hori, bai ikerketan bai klinikan, diagnostikoak egiteko tresna multzo bat da. Trebatutako elkarrizketatzaile batek pasatu behar du. Diagnostikorako 14 atalez osatuta dago, eta horietako bat, G atala, fobia sozialaren ebaluaziorako baliaitzen da.

b) Elkarrizketa erdi egituratuaren artean erabili da.

◆ **ADIS IV C, *Anxiety Disorders Interview Schedule for Children and Adolescents*** edo ***Haur eta Nerabeentzako antsietate-nahasteen elkarrizketa protokoloa*** (Albano eta Silverman, 1996); izan ere, antsietate-arazoak ebaluatzeko eta diagnostikatzeko oso erabilgarria da. Antsietatean eragina duten faktore kognitibo eta egoerazkoak aztertzen ditu. Fobia sozialaren ebaluazioari buruzko atalean, 12 egoera sozialen aurrean subjektuak adierazten duen beldurraren eta ekiditearen intentsitatea ebaluatzen da. Elkarrizketaren iraupena ordubetekoa da; trebakuntza berezia behar da elkarrizketa pasatzeko, eta ezaugarri psikometrikoak (epaileen arteko akordioa, kappa koefizientea eta test-birtest fidagarritasun-maila) onak dira, egileen arabera.

#### ***Autotxostenak***

Interakzio sozialaren eremuak aztertzen dituzte, eta subjektuaren ikusmolde subjektiboa jasotzen. Antsietate soziala aztertzeko hainbat autotxosten espezifiko daude:

◆ **FNE, *Fear of Negative Evaluation Scale*** edo ***Ebaluazio negatiboaren beldur-eskala***, denbora gutxi behar duen teknika da, eta **SAD, *Social Avoidance and Distress Scale*** edo ***Ekidite eta ondoez soziala ebaluatzeko eskala*** (Watson eta Friend, 1969).

Fobia sozialaren bi sintoma nagusiak aztertzen dituzte bi eskala horiek; izan ere, horregatik pasatzen dira batera. 15 minutu behar dira, eskalak pasatzeko.

### **FNE eskalaren adibideak**

1. Gehienetan ez nau kezkatzen besteen aurrean tontoa banintz bezala gelditzeak.
5. Egoera sozial batean huts egiten badut, oso gaizki sentitzen naiz.
9. Gehienetan beldurra ematen dit jendeak nire akatsez konturatzeak.
14. Jendearen kritikak beldurra ematen dit.

### **SAD eskalaren adibideak**

3. Gehienetan pertsona ezezagunekin nagoenean, lasai sentitzen naiz
9. Pertsona berriak ezagutzeko aukera badut, aprobetxatu egiten dut eskuarki.
21. Pertsonak ekiditen saiatzen naiz.
24. Eskuarki, konpromiso sozialak saihesteko aitzakiak ematen ditut.

◆ **SPAI; *Social Phobia Anxiety Inventory, Fobia sozialen eta antsietatearen inbentarioa***, (Turner et al. 1989). Antsietate sozialaren hiru dimentsio nagusiak (motorra, psikofisiologikoa eta kognitiboa) aztertzeko sortu zen. 45 itenez osatuta dago, eta 3 puntuko eskalaren arabera erantzuten zaio. Fobia soziala duten subjektuak identifikatzeko Turner-ek 60ko puntuazioa edo altuagoa proposatzen du.

◆ **LSAS-CA, *Liebowitz Anxiety Scale for Children and Adolescents, Haur eta nerabeentzako Liebowitz-en antsietate-eskala*** (Masia-Warner, Klein eta Liebowitz, 2002). Tresna horrek 24 itemen bidez ebaluatzen ditu fobia soziala daukaten haur eta nerabeentzat beldurgarri izan daitezkeen egoerak. Itemen erdiek interakzio sozialeko egoerak ebaluatzen dituzte, eta beste erdiek, jarduera-egoerak. Haurrak edo nerabeak 0tik 3rako eskala baten bidez erantzun behar die 24 egoerei.

### **LSAS-CA eskalaren adibideak**

- 3. Toki publikoetan jatea.
- 7. Festa batera joatea.
- 12. Ezezagunak ezagutzea.
- 22. Denda batean erositakoa itzultzea.

### ***Autoerregistroak***

Autoerregistroak autotxosten batzuk dira, subjektuak bere jarrerak eta ekintzak egoera naturaletan jasotzeko egiten direnak. Antsietatea sortzen duten egoera sozialean interakzioa ebaluatzea ahalbidetzen duen estrategia praktikoa eta eraginkorra da. Ikuspegi konduktista batetik, jarreraren analisi funtzionala egiteko informazioa emateaz gain, tratamenduak irauten duen bitartean subjektuak egin beharreko jarduerak kontrolatzen ditu. Fobia sozialaren tratamenduaren efektuen ebaluazioaren prozesuan elementu funtsezkoa da. Subjektuak erantzun asko erregistra dezake, kontuan izanda harreman sozial mota, maiztasuna, intentsitatea eta iraupena, haren aurrekariak eta ondorioak,

interakzioan inplikaturik dagoen pertsona kopurua eta haien ezaugarriak, izandako pentsamenduak, erantzun fisiologikoak, eta abar.

Ebaluatzailearen helburuaren arabera, autoerregistro erabilienak egunerokoak, zerrendak eta erregistro-orriak dira. Azken horietan, subjektuak taula bateko hutsuneak bete behar ditu, jarreraren alderdi topografikoak, eguna eta ordua, egoera, sentimenduak eta antzeko datuak adieraziz. Autoerregistroaren desabantaila da, egunero bete behar denez, aspergarria eta nekagarria izan daitekeela eta subjektuak zeregina betetzea ahatz dezakeela.

## FAMILIAREN EBALUAZIOA

### 1. Gurasoen heziketa-ereduak

Gurasoen heziketa-ereduak haurren egokitzapen-garapenean daukan eraginaren inguruan zalantza gutxi dago. Hasierako datu enpirikoak psikoanalistek eta konduktistek jaso zituzten. 1950. urte aldera, aurrerapen metodologikoak egon ziren, eta horiek ahalbidetu zuten sakabanaturik zeuden datuak berrantolatzea. Horrela, bada, analisi faktorialaren teknikaren bidez, familiaren egituraren eragina duten bi faktore garrantzitsu aurkitu ziren: “*babesa*” eta “*kontrola*”. Horiek gurasoen heziketa-praktikak azaltzen dituzte, eta ia gizarte guztietan ageri dira.

Aipatutako bi dimentsio horien ildoan, hainbat heziketa-eredu ageri dira:

## ***1. Eredu autoritarioa***

Eredu horrek honako ezaugarri hauek izan ohi ditu:

- arau zurrunik
- obedientzia, balioak, autoritatearen alderako errespetua, lana, ordena eta tradizioa gorestea
- independentzia eta indibidualtasun murrizta edo eza.
- zigorraren ohiko erabilera
- baliabide emozionalen gabezia

Teknika horietaz baliatzen diren gurasoak ezgaitzat jotzen dira hainbat arrazoiengatik (Baumrind, 1967, 1971): seme-alabak erreprimitu behar diren indar antisozialen menpe daudela pentsatzen dute. Ez diete erreparatzen haurren beharrei. Ez diete seme-alabei eskaerarik egiten beren garapen-mailara egokitzeko, eta hertsagarriak eta ez-egokitzailak diren teknikak gehiegi erabiltzen dituzte.

Eskuarki, horrelako gurasoek ekiditen dituzte umeen jarduera edo ekimen berriak. Beraz, gauza berriak ikasteko aukerak murrizten zaizkie. Azken finean, gurasoak dira haurrari helmugak eta bideak jartzen dizkietenak, baina inposatuz.

Horrelako familiak gehienetan antolatugabeak, kaotikoak eta ekonomikoki ahulak izan ohi dira; buru-osasuneko arazoak izaten dituzte, eta auzo marjinatu eta arriskutsuetan bizi ohi dira. Horrelako kasu gehienetan familia kide asko izaten dira.

Eredu autoritarioa erlazionatu izan da haurraren eragin negatiboa izan dezaketen hainbat ondorioarekin: eskola-errendimendu urriarekin, agresibitatearekin, drogen kontsumoarekin, sintoma psikosomatikoekin (anorexiarekin ere bai), elkarrekintza sozial urriarekin, eta depresioarekin.

Beraz, hezteko eredu honek umearen garapen egokia oztopa dezake.

## **2. *Eredu laxoa***

Ikertzaile askorentzat (Baumrind, 1971; Maccoby & Martín, 1983), hau da efektu negatibo gehien sortzen duen eredua. Honako hauek dira haren ezaugarriak:

- familiaren barneko arauen gabezia
- haurraren jokabidea ez gainbegiratzea edo zaintzea
- babes jarraituaren gabezia edo oinarri falta

Horrelako gurasoek mezu nahasiak eta koherentzia gabeak bidaltzen dizkiete seme-alabei. Ez dago inolako arau, bide edo mugarik. Horregatik, zerbait lortu nahi denean, ez dira bideak erakusten, eta horrek frustrazioa sortzen du haurrengan nahiz gurasoengan. Umearekin ez dute ia denborarik igarotzen, edo, bestela, ez diote arreta handirik eskaintzen; gurasoek arreta gehiago jartzen diete beren behar propioei umeen beharrei baino. Azken batean, haurrei nahi duten guztia egiten uzten diete, horrela gurasoak lasai utziko dituztela pentsatuz. Gehienetan badirudi ez daudela pozik beren umearekin. Batzuetan, maitasunezko sentimenduak azaltzen dizkiete haurrei, baina, egia esanda, ez dira oso adeitsuak, eta, gainera, konpromiso-maila txikia izaten dute eskuarki.

Ikerketa batzuen arabera, horrela hezitakoek jarrera-arazoak izan ohi dituzte. Adibidez, erasokortasuna, tolerantzia eza eta mesfidantza. Horretaz gain, arazo kognitiboak ere izan ohi dituzte: garapen intelektual apala eta eskola-errendimendu txikia.

Eredu autoritarioarekin alderatuz, gurasoek ez dituzte umeak estutzen, lorpen eta arrakasta akademikoak izan ditzaten, baina bi ereduetan emaitzak antzekoak dira (txarrak).

### ***3. Eredu orekatua***

Honako ezaugarri hauek ditu:

- Umearen beharrekiko sentibera da, eta subjektu gisa pertsona bakoitza ezberdina dela onartzen du.
- Arauak badaude, horiek bete beharra azpimarratzen da, familiako kidea den neurrian.
- Familiako kide guztien arteko komunikazioa.
- Gurasoen babes instrumentala.
- Boterea (kontrola eta zigorrak) erabiltzen da, soilik beharrezkoa denean.
- Umearen independentzia eta indibidualtasuna sustatzen da.

Arrazoibidearen eta elkarrizketaren erabilera dira eredu honen ezaugarri nagusiak. Gehienetan, horrelako antolamenduak afektibitateko eta babes emozionaleko maila handiekin batera doaz. Adibidez, umeak zerbait ondo egiten duenean esan egiten zaio, gorespenak daude, eta baita sari materialak ere.

Elkarren begirunezko familia-giroa izan ohi dute. Autoritatea gurasoek dute, baina, oso sentikorrek direnez, autoritatearen izena leuntzen da. Horregatik, gurasoek autoritatea zer den egoki erakusten diete haurrei, eta oinarrizko arauak erakusten dizkiete. Haiek irakasteko errefortzu jarraitua —onarpena ala zentsura— erabiltzen dute.

Argi dago horrelako giroa erabat egokia dela haurraren jarrerak egokitzaileak izan daitezen. Haren nortasuna sustatzen da, eta horrek honako hauek dakartza: ekimen-maila

handia, irudimena, jakingura, norberarenganako segurtasuna, independentzia eta giza gaitasuna. Haur horien autokontrola altua da, eta horrek gizarte arauak barneratzea errazten du. Beraz, eskola-errendimendua eta gaitasun intelektuala gurasoek emandako babes eta maitasunarekin erlazionatuak daude.

## **2. Familiaren ebaluazioa**

Umearen edozein arazo kognitibo, emozional edo jarrerazkoa diagnostikatzeko, prebenitzeko edo tratatzeko, familiaren ebaluazioak ezinbestekoak dira.

Hainbat mailatan egin daitezke familiaren ebaluazioak (Rutter eta beste, 1988):

- ✓ familiako kide bakoitza
- ✓ gurasoen eta seme-alaben arteko erlazioak
- ✓ gurasoen arteko harremanak
- ✓ familia osoa elkarturik

Erabiltzen diren tresnak babes- eta kontrol-dimentsioen ingurukoak dira, eta gehienek afektuan, maitasunean, babesean edo gurasoen araubidean oinarritzen dira. Historikoki, gurasoek haurren heziketaren aldera zuten jarrera ebaluatzeko lehen galdesorta Sears-ek garatu zuen Stanley Hall-en laguntzarekin 1899. urtean. Han, arazo batzuk planteatzen ziren, eta gurasoek haien aurrean zituzten jarrera eta iritziak aztertzen ziren. Batez ere zigorren erabilera eta zigor motak aztertu zituzten.

Familiak ikertzeko teknika horietan, galdesortak, elkarrizketak, behaketa zuzena eta laborategiko ikerkuntzak erabiltzen dira.

## **Galdesortak:**

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak aztertzen dituzten galdesortek informazioa ematen digute heziketaren inguruko norberaren eta bestearen jokaerei buruz. Subjektuak berak erantzuten die galderei paper batean. Beraz, une horretan, ikertzailearen presentzia ez da guztiz beharrezkoa (soilik ulermenezko zalantzetarako). Subjektuek dituzten jarrerak, sinesmenak eta pertzepzioak aztertzen dira. Informazioa deskriptiboa da, eta egungo nahiz iraganeko egoerei buruzkoa izan daiteke.

Galdesortek duten abantailak honako hauek dira: errazak, azkarrak eta merkeak. Umeak metodo horrekin ebaluatzeko zailagoak dira: distraitu egiten dira; erantzuten motelagoak dira, eta ulermen-arazo gehiago dituzte. Horrek galdesorten fidagarritasuna zalantzan jartzen du. Halere, fidagarritasun-mailak antzerakoak dira haur eta helduengan. Baina, halere, adina faktore eragile bat dela onartu behar da.

Bi talde bereiz ditzakegu: gurasoak informazio-iturri gisa dituzten galdesortak eta seme-alabak informazio-iturri gisa dituztenak:

### ***Gurasoak informazio-iturri gisa dituzten galdesortak:***

Jarraian dituzue gurasoek erabiltzen dituzten heziketa-ereduei buruzko informazioa biltzeko erabiltzen diren tresnak (del Barrio, 2005):

| AUTOREAK          | URTEA      | IZENA  | ALDAGAIA  | ITEM KOPURUA | INFORM. ITURRIA |
|-------------------|------------|--|---|--------------|-----------------|
| Shoben            | 1949       | Parent Attitude Survey (PAS)                 | <u>3 azpieskala:</u><br>mendetasuna, jabetasuna, arduragabetasuna                   | 85           | Gurasoak        |
| Schaefer eta Bell | 1958       | Parent Research Instrument (PARI)            | <u>23 azpieskala:</u>   | 115          | Gurasoak        |
| Roth              | 1961, 1980 | Mother Child Relationship Inventory (MCRE)   | <u>4 azpieskala:</u><br>gehiegizko babes, errukia, ukapena eta onarpena             | 48           | Gurasoak        |
| Block             | 1965, 1980 | Child Rearing Practices Report (CRPR)        | <u>21 azpieskala:</u><br>heziketarekiko jarduerak, sinesmenak, kontrola, afektua... | 91 eta 40    | Gurasoak        |
| Dielman eta lag.  | 1971       | Child Rearing Practices Questionnaire (CRPR) | <u>16 faktore:</u><br>disziplina, babes...  | 106          | Gurasoak        |
| Rhoner et lag.    | 1978, 1994 | Parental Acceptance Rejection (PARQ)         | <u>4 azpieskala:</u><br>afektua, ukapena, eraso eta arduragabekeria                 | 60 eta 36    | Gurasoak        |
| Frick             | 1991       | Alabama Parenting Questionnaire (APQ)        | Guraoen heziketaren kalitatea   | 35           | Gurasoak        |

Tresna horiek ingelesez daude. Euskaraz egindako egokitzapenik ez dago, nik dakidala. Gaztelaniaz egokitzapen batzuk egin dira, originalean ingelesez zeuden tresnak hartuta. Adibidez, **Parent-Child Relationship Inventory (PCRI:** Gerard, 1994; gaztelaniazko egokitzapena: del Barrio eta Roa, 1995). Babes- eta kontrol-dimentsioetan oinarritzen da, eta guraoen eta seme-alaben arteko harremanen deskripzio kuantifikatuak eskaintzen dira, besteak beste, guraoek haurra hezteko erabili duten metodoa. Galdesorta honen ezaugarriak:

- 78 item dauzka, eta haren asmoa da seme-alabekiko harremanaren ikuspegi gatazkatsuak atzematea.
- Itemak 8 eskalatan banatuak daude:
  - babesa
  - heziketarekiko asetasuna
  - konpromisoa
  - komunikazioa
  - diziplina
  - autonomia
  - rolen banaketa
  - desiragarritasun soziala
- Item batzuk negatiboki formulatuak daude, eta beste batzuk positiboki.
- Itemen puntuazioa 4 puntuko eskala batean ematen da.
- Eskalak ikuspegi enpiriko eta arrazionalak kontuan izanda eratu ziren.

PCRI eskaletan puntuazio altuak lortzeak adierazten du hezitzailearen eginkizuna ondo ezagutzen dela. Puntuazio baxuek, aldiz, ezagutza murrizta edo hutsala adierazten dute. Desiragarritasun sozialaren eskala salbuespen bat da, puntuazio altuek honako hau esan nahi baitute: gurasoek haurrei mezu eta erantzun distortsionatuak helarazi dizkietela.

Ezaugarri psikometriko onak ditu: *Cronbach-en alfa* .48tik .68ra bitartekoa da, autoreen arabera.

**Seme-alabak informazio-iturri gisa dituzten galdesortak:**

1940ko hamarkadaren bukaeratik 1950eko hamarkadara bitartean haurrek beren heziketari buruz zuten pertzepzioa ebaluatzeko saiakerak egon ziren arren, 1960ko hamarkadara arte ez ziren tresna horiek zabaldu (hau da, teknologiak garatu ziren arte). Hala ere, Straus eta Brown-en ustean horrelako tresna gutxik betetzen dituzte ezaugarri psikometriko egokiak.

Jarraian dituzue tresna erabilienak:

| AUTOREA                                    | URTEA | IZENA   | ALDAGAIK  | ITEM KOPURUA | INFORMAZIO ITURRIA    |
|--|-------|---|---|--------------|-----------------------|
| Prinz, et al.                              | 1979  | Conclit Behavior Questionnaire (CBQ)          | Komunikazioa eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremana                      | 75           | Nerabeak              |
| Parker, Tupling eta Brouw                  | 1979  | Parent Bonding Instrument (PBI)               | <u>2 faktore:</u> zaintza eta gehiegizko babesa                                 | 25           | Helduak eta Nerabeak  |
| Arrindell et al.                           | 1983  | Egna Minnen Beträffande Unppforstran (EMBU)   | <u>4 faktore:</u> Ukapena, bero emozionala, gehiegizko babesa eta kutunkeria    | 64           | Helduak eta nerabeak  |
| Gerlman, Arrindel, Van der Veen, Emmelkamp | 1991  | Egna Minnen Beträffande Uppfostran (EMBU-A)   | <u>4 faktore:</u> Ukapena, bero emozionala, gehiegizko babesa eta kutunkeria    | 56           | Nerabeak (14-18 urte) |
| Buri                                       | 1991  | Parental Authority Questionnaire (PAQ)        | <u>3 eskala:</u> baimendua, autoritarioa eta laxoa                              | 30           | Nerabeak              |
| Depreeuw, Lens eta Van Horebeek            | 1995  | Vragenlijstvoor Ouder-Kind Interactive (VOKI) | <u>5 faktore:</u> errefortzua, zigorra, babesa, sendotasunik eza eta murrizketa | 60           | Nerabeak (15-20 urte) |

Lehen bezala, esan behar dugu tresna hauek ingelesez daudela eta ez dagoela, nik dakidala, euskaraz egindako egokitzapenik. Espainiako populaziora egokitutako haur eta nerabeentzako tresnak badira, eta hemen batzuk aurkeztuko ditugu:

◆ *Parent-Child Relationship Inventory* edo *Guraso eta haurren arteko harremanen inbentarioa* (PCRI-N; Gerard, 1994, Del Barrio eta Roa-ren gaztelaniazko egokitzapena, 1995). Haurrak gurasoengandik jasotzen duen heziketa-ereduari buruz duen pertzepzioa neurtzen du.

- 62 item dauzka.
- Itemak 7 eskalatan banatuta daude:
  - babesia
  - konpromisoa
  - komunikazioa
  - diziplina
  - autonomia
  - rolen banaketa
  - desiragarritasun soziala

Tresna honen fidagarritasuna, *Cronbach-en alfa*-ren arabera, .09tik .62ra bitartekoa da.

Galdesorta 10-17 urteko haur eta nerabeei aplika diezaiekegu. Puntuazioak altuak direnean, subjektu horiek iritzi ona dute jasotako heziketari buruz. Tresna horrek, ikusi

dugun bezala, beste galdesorta bat dauka gurasoentzat; beraz, heziketa-eredua bi ikuspuntuetatik (gurasoenetik eta seme-alabenetik) aztertzeko aukera ematen du.

◆ ***Familia-sozializazioaren eskala (SOC-30;*** Musitu et al., 1984, 1993): EMBU testaren gaztelaniazko egokitzapena da. Hurrek beren gurasoen familia-sozializazioaren garapenari buruz duten pertzepzioa ebaluatzen du. Gehienbat, heziketaren pertzepzioaren eta autoestimuaeren arteko erlazioa ikertzeko erabili izan da.

Hona ezaugarriak:

- 30 item dauzka.
- Itemak 4 eskalatan banatuak daude:
  - babesa
  - zigorra / hertsadura
  - gehiegizko babesa / kontrola
  - gaitzespena

◆ ***Nerabezaroan gertatzen diren guraso-sozializazioaren ereduaren eskala (ESPA29;*** Musitu eta García Pérez, 2001). Gurasoen sozializazio-ereduak aztertzen ditu onarpen/inplikazio eta hertsatze/ezartze dimentsioen bidez. Galdesortan, nerabeek guraso bakoitzaren erantzun posibleak ebaluatzen dituzte. Galdesortaren ezaugarriak honako hauek dira: 29 item dauzka, eta itemak negatiboki nahiz positiboki idatzita daude; 4 puntuko eskala baten arabera erantzuten da, eta aplikazio-adina 12 urtetik 18 urtera bitartekoa da. TEA etxeak argitaratu du eskala hau.

### **Familiaren funtzionamendu orokorra ebaluatzen duten galdesortak:**

Tresna hauek teoria sistemikoek bultzaturik sortu dira, eta, beste tresnetan ez bezala, familiaren ezaugarri orokorretan oinarritzen dira, familiaren barruan, familiako kideen artean, eta harengan eragina izaten duten familiaz kanpoko sistemetan.

◆ **FES; *Family Enviroment Scale*** edo ***Familia-giroa ebaluatzeko eskala***, (Moos eta Moos, 1976, 1981).

Eskala honek, hainbat egoera espezifikotan, gizarte-giroa ebaluatzen duten egitura berdineko 8 eskala ditu: “Classroom Environment Scale”, “Group Environment Scale”, “Community Oriented Programs Environment Scale”, “Work Atmosphere Scale”, “Correctional Institutions Environment Scale” eta “University Residence Environment Scale”. Euskarazko bertsioan, 2 eskala aurkezten dira: gizarte-giroko eskala familian (FES) eta gizarte-giro eskala eskolan (CES).

Eskala honek hiru eredu edo forma dauzka:

- 1) *Eredu erreala (R)*: familiako kideek familia-giroari buruz duten pertzepzioa neurtzen du.
- 2) *Eredu ideala (I)*: familiako kideek familia-giro idealari buruz duten pertzepzioa neurtzen du.
- 3) *Igurikapenen eredua (E)*: familia-giroan aldaketa handi bat gertatu ondorengo igurikapenak neurtzen ditu.

Horietatik euskarara (eta gaztelaniara) itzuli den bakarra *Eredu Erreala (R)* da. Horrek 90 item dauzka, 3 dimentsio azaltzen dituzten 10 azpieskalatan banaturik:

familia-egoerako harremanak, garapena eta oreka. Itemen erantzuna dikotomikoa da: “egia” edo “gezurra”, eta, familiako kide bakoitzari pasatzen zaionez, haien artean konparazioak egin daitezke, adostasuna ala desadostasuna dagoen ikusteko. Aplikatzeko hiru moduetan material bera erabiltzen den arren, bakoitzari ikuspuntu batetik erantzutea eskatzen da.

### FITXA TEKNIKOA

**Jatorrizko izena:** The Social Climate Scales edo Gizarte Giroa Ebaluatzeko Eskalak (Family, Work, Correlational Institutions and Classroom Environment Scales).

**Egileak:** R.H. Moos eta E.J. Trikkett.

**Euskarara egokitua:** J. Etxeberriak zuzendurik, 1993.

**Aplikazio-adina:** 13 urtetik 18 urtera.

**Iraupena:** aldakorra, 20 min. eskala bakoitzeko gutxi gorabehera.

**Esanahia:** familian eta eskolan pertsonen arteko harremanak eta inguruko ezaugarriak ebaluatzen dituzten bi eskalaz osaturik dago.

**Tipifikazioa:** laginekin egindako eskala bakoitzeko modeloak.

**Ezaugarri psikometriko:** onak.

**Gizarte Giroa Familian (FES).** Familiako kideen arteko harremanak, garapenerako garrantzia duten alderdiak eta haien oinarrizko egitura ebaluatzen ditu. Oinarrizko 3 dimentsio bereizten dira, eta, aldi berean, hainbat azpieskalaz osaturik dago. Hona hemen test honen eskalak eta azpieskalak:

- **Harremanak:** familia barruko komunikazioa, adierazpen askea eta gatazka neurtzen ditu (*Kohesioa, Adierazkortasuna* eta *Gatazka* dira azpieskalak)
- **Garapenak** ebaluatzen du zer garrantzi duten familian elkarbizitzan bultzatuko diren edo ez diren zenbait garapen-prozesuk (azpieskalak hauek dira: *Autonomia, Ekintza, Intelektoa-kultura, Morala-erlijioa* eta *Gizartea-josteta*)
- **Egonkortasunak** familiaren osaeraren eta familiako kide batzuek besteengan duten kontrolaren berri ematen du (*Antolakuntza* eta *Kontrola* dira azpieskalak).

### **Aplikazio- eta zuzenketa-arauak**

Subjektuek erantzunak “erantzun-orri”an adierazi behar dituzte. Erantzuten hasi aurretik, eskatzen zaizkien datuak idatziko dituzte, eta, gero, FES eskalan, subjektuak familian betetzen duen lekua ezarriko dute.

Gero, instrukzioak irakurtzen zaizkie, eta, azkenean, dena ulertu duten galdetzen zaie. Probarako ez dago denbora mugaturik.

Zuzenketa errazteko, txantiloiak erabiltzen dira. FESen kasuan, hamar azpieskala daude, eta bakoitzean lor daitekeen puntuazio altuena bederatzi da.

### **Interpretazio-arauak**

**Tipifikaziorako laginak:** FES eskala hiru ikasmaitan aztertua izan da, 13-14, 15-16 eta 17-18 urteko hurrekin, hain zuzen.